

OSO GUNEKO ERAKASKERA

1994-95.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

- 1- Zon bat pilotari-ohi bagerin berrian?
- 2- So egiletan nor zen zaharrena?
- 3- Parbida hesteau zombat jokatu zuten?

② Piarresen Igandea, Biharramunean 5.

Pilotari zahar guziak han ziren jada, lehen larroan: Xantiago, Théophile eta Xabatene, nehon guti ikusi baita holako hiru pilotari herri beretik betan²⁸ atheratzen. Hiruak, doi doa... ez zahartuak, baina zohituak,²⁹ Xantiago, bere bethiko Clovis zenaren mustatxa alimalearekin; Théophile, Jon Doni Petriri elizan erori kapelu eder bat buruan; Xabatene, zigarro bat -ez lehenagoko bura, hatik- bere ezpain mehe eta hortz xuriaren artean. Heien ean, Dominixe zaharra, tente xutik egoki, lerdin eta gazte, bere lau hogoi urtheekin; Ganix, Ganixon, Audet, Sanson eta bertze batzu orain³⁰ eriak³⁰ iguzkiari bezala, hek pilotari berotzerat ethorriak.

Aspaldiko jaun bikario ona, bere gazteen erdian, bati oihu, bertzeari hirri, gozoki ari zen. Jaun erretora ere han zen, boia-harriaren gainean xutik, bere Eskualdun gizonen erdian. Eta jaun erretora, jaun mirikua, jaun mera eta laborari hek guziak, bi eskuak bizkar gibelcan kurutzaturik, han zauden, beren lanak eta grinak ahantzirik, orentto bat deskantsuan iragan beharrez. Gehientsuek aste guzia izanen zuten gero, lurrarekin borrokan artzeko, eta beren begitarte arraien³¹ zimurtzeko.

Eta kuxean³² hasi zen gudua. Pierre-ekzerrak bere saka bihurriak alderdi guzitarat zirurikatu zituen berehala. Eta berehala ere hasi trebesak, eta alderdi orotarik betan:

"Hamar libera sacearen alde!

-Eginak dituk.

-Nahi duk berriz?

-Eginak dituk!..."

Eta Jan Pierre, Mixel, bertze Jan Pierre oraino eta Battitta eta Gakien, oro betan oihuka:

"Hamar libera erreferaren!³³"

-Hogoi libera sacearen!"

Frantzoa, bi ukaldien arteik trebes guzieren ohartua hura ere:

"Hamar libera? Eginak dituk. Bertze hainbertze? Eginak dituk. Hogoi hamarril..."

Piarres, ixilixila, bere hari dago, non xoko bat atxeman, non toki hil eta torta³⁴ bat, harat pilotaren igortzeko.

"-Hamar eta zazpi, sakeak hamar, erreferak zazpi, hogoita hamabortzetara! Xaxiarari³⁵ edatera, a, a, a, a!"

Xaxiarari

③ ADITZ IKASKUNTZA.

- 31 Han zauden 32. Izanen zuten.
- 33 Han ziren 34. Eginak dituk
- 35. EGDN. Indicatif. Imparfait. Condit. Présent ou Futur

Ni mindagon (je restais)	Nindagoke (je resterais)
Hi mindagon	Hindagoke
Zu zinanden	Zinanzke
Hura zagon	Lagozke
Gu ginandea	Ginanzke
Zuek zinandesten	Zinanzkete
Hek zauden	Lauzke etc.

Condit. Passé.

Egonen nintzen = je serais resté => etc.

32. UKAN. Indicatif. Imparfait. O. S. O. P.

Nik nuen = je l'avais	nintzen = je les avais
Hi huen = tu l'avais	hitzuen =
Zuek zinuen = vous l'aviez	zinituen =
Harek zuen = il l'avait	zituen =
Gu ginuen = nous l'avions	ginituen =
Zuek zinuten = vous l'aviez	zinituzten =
Heiek zuten = ils l'avaient	zituuzten = etc.

33. IZAN. Indicatif Imparfait.

Ni nintzen	= j'étais
Hi hintzen	= tu étais
Zu zinuen	= vous étiez
Hura zen	= il était
Gu ginuen	= nous étions
Zuek zinuzten	= vous étiez
Hek ziren	= ils étaient